Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1566

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 26koa, Berrikuntza eta Energia sailburuordearena, meategi berrikuntzako proiektuak eta jarduerak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia egiten duena 2009ko ekitaldirako.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2007ko irailaren 10eko Aginduak meategi berrikuntzako proiektuak eta jarduerak finantzatzeko laguntzak arautu zituen eta horien oinarri arautzaileak onartu zituen (urriaren 18ko EHAA, 201. zenbakia).

Aipatutako aginduaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da hor iragarritako diru-laguntzak 2009ko ekitaldian emateko deialdia egitea, eta, horretarako eman beharreko arauak ematea.

Horrenbestez, aipatutako aginduaren 7. artikuluan ezarritako ahalmena erabilita, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

1.– Ebazpen honen xede da Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2007ko irailaren 10eko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2009ko deialdia egitea da; agindu horren bidez, meategi berrikuntzako proiektuak eta jarduerak finantzatzeko laguntzak arautu eta laguntza horien oinarri arautzaileak onartu ziren.

2.– Helburu hori betetzeko, bostehun eta berrogei mila euroko (540.000 euro-Meategi berrikuntzako proiektuak) ordainketa-kreditua dago 2009ko ekitaldirako.

3.– Laguntzetarako jarritako kopurua aldatu egin daiteke —betiere, diru-laguntzei buruzko ebazpena eman aurretik— kontuan hartuta eskatu diren laguntza guztiak eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak beste laguntza-programa batzuen aurrekontuetan agortu gabe dituen baliabideak. Horrelakorik gertatuz gero, Berrikuntza eta Energia sailburuordeak horren berri emango du ebazpen baten bidez.

Bigarrena.– Betekizunak.

1.– Eskatzaileek, baldin eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2007ko irailaren 10eko Aginduan aurreikusitako laguntzak jaso nahi badituzte, agindu horren 4. artikuluan ezartzen diren betekizunak bete beharko dituzte (agindu horrek meategi berrikuntzako proiektuak eta jarduerak finantzatzeko laguntzen oinarriak arautzen ditu).

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

1566

RESOLUCIÓN de 26 de febrero de 2009, del Viceconsejero de Innovación y Energía, por la que se efectúa la convocatoria de las ayudas para la financiación de proyectos y actuaciones de innovación minera para el ejercicio 2009.

En virtud de la Orden de 10 de septiembre de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, se regulan las ayudas para la financiación de Proyectos y actuaciones de innovación minera y se aprueban sus bases reguladoras (BOPV n.º 201, de 18 de octubre).

De conformidad a lo establecido en el artículo 7 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2009, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el mencionado artículo 7 de la Orden de referencia

RESUELVO:

Primero.– Objeto.

1.– Es objeto de la presente Resolución la convocatoria para el ejercicio 2009 de las ayudas previstas en la Orden de 10 de septiembre de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regulan las ayudas para la financiación de Proyectos y actuaciones de innovación minera y se aprueban sus bases reguladoras.

2.– A tal efecto se cuenta con un crédito de pago para el ejercicio 2009 por importe de quinientos cuarenta mil euros (540.000 euros-Proyectos de Innovación minera).

3.– Este importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de las ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Innovación y Energía.

Segundo- Requisitos.

1.– Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden de 10 de septiembre de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regulan las ayudas para la financiación de Proyectos y actuaciones de innovación minera y se aprueban sus bases reguladoras, deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 4 de la Orden de referencia.

2.– Halaber, eskabide-orria eta gainerako agiri osagarriak Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Energia eta Meategien Zuzendaritzari zuzenduko zaizkio; Zuzendaritza horren bulegoetan edo Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoetan aurkeztu beharko dira, zuzenean, edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduren batean (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutakoa).

3.– Eskatzen diren laguntza horien bidez egin nahi diren ekintzak burutzeko azken eguna 2009ko abenduaren 31 izango da.

4.– Eskabideak hilabeteko epean aurkeztu behar dira, deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Deialdi-ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari. Hilabeteko epea emango da horretarako, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 26a.

Berrikuntza eta Energia sailburuordea,
JOSE IGNACIO ZUDAIRE ARANA.

2.– Asimismo, deberán dirigir las solicitudes y demás documentación complementaria a la Dirección de Energía y Minas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, presentándolas en sus dependencias o en las de las correspondientes Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo de cada Territorio Histórico, bien directamente o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

3.– El plazo de ejecución de las actuaciones para las que se soliciten las ayudas finalizará el 31 de diciembre de 2009.

4.– El plazo de presentación de solicitudes es de un mes, comenzando al día siguiente de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de febrero de 2009.

El Viceconsejero de Innovación y Energía,
JOSE IGNACIO ZUDAIRE ARANA.